

a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA



Hizkuntza batean hitz egiten hasteko, ezinbestekoa da oinarrizko hiztegia eta oinarrizko zenbait egitura menperatzea. Umeekin lanean hasi berriak garen honetan, oinarri-oinarrizko hiztegia eta hainbat egitura landuko ditugu.

Aukeratutako gaiak gertukoak dira:

- **Gelako materiala:** gelan aurkituko dituzten gauzak euskaraz izendatzen ikasteko.
- **Gelako kartelak:** gelan hainbat kartel itsatsiko ditugu umeei zenbait esaldi esaten hasteko.
- **Aginduak:** hainbat agindu landuko dira umeei zenbait instrukziori erantzun eta eurek ere hainbat gauza euskaraz eskatu ahal izateko.
- **Agurrak:** agurrak landuko dira umeei euskaraz agurtzen ikas dezaten.
- **Koloreak:** koloreak euskaraz izendatzen ikasiko dute.

Umeek Joxeren, gutun bat jasoko dute. Bertan, azalduko die, hainbat jolas eta ekintzen bitartez, hitzak ikasten hasiko direla. Umeek, aurretik jakin beharko lukete “hitzen txokoa” edukiko dutela gelan eta landuko dituzten hitzak txoko horretan txertatuko dituztela.